



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko abenduaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko abenduaren bostean, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 1a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 1a

2. ERABAKIA: URZAIZ ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ESLEIPENA (7.5.2 nomenklatura)

Auzapezak Urzaiz elkarteak herriari egin dirulaguntza eskaera aurkeztu du. Auzapezak zehaztu du elkarteak Hondamendia izeneko antzerkia emanen duela Ortzaizen Euskararen urtaroaren kariatara.

Auzapezak proposatu du Urzaiz elkarteari 2 000 euroko dirulaguntza esleitzea antzerki emanaldi horren diruztatzeko.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak,

- **ERABAKI DU**, Urzaiz elkarteari 2 000 euroko dirulaguntza ematea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/12/22an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/12/22an.